



Parlamento de Navarra
Nafarroako Parlamentua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 27an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2020ko urtarrilaren 15ean Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak txosten bat aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuaren 2020ko ekitaldirako aurrekontu-proiektuan talde parlamentarioentzat onetsiriko diru-laguntzei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 35. eta 37. artikuluek ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Ezartzea, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, talde parlamentarioentzako diru-laguntzek ez dutela inolako igoerarik izanen.

2. Onestea, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, talde parlamentarioek jasoko dituzten ordainsariak. Haien zenbatekoak hauek dira:

a) Diru-laguntza finkoa: 8.091,00 euro/hilabete/talde parlamentario.

b) Diru-laguntza aldakorra: Kontzeptu hauen baturaren araberako zenbatekoa:

- Funtzionamendu-gastuak: 1.462,00 euro/hilabete/parlamentari.
- Antolaketa-gastuak: 1.117,00 euro/hilabete/parlamentari.
- Langile eta jarduera gastuak: 4.172,00 euro/hilabete/talde parlamentarioko bost parlamentari bakoitzeko edo zatikiko.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 27an

LEHENDAKARIA



Unai Hualde Iglesias